

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

APARKATZEKO GUNEAK EZARTZEKO IRIZPIDEEN ETA BIDE PUBLIKOETAKO DEPARTAMENTUAREN FUNTZIONAMENDUAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko uztailaren 10ean Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legegintzaldian, Larratxo pasealekuko 26. zenbakiko Bellavista jubilatuen etxearen kanpoaldean, hainbat konponketa egin ziren sarrera irisgarriagoa izateko: arrapala bat eraiki zen bihurgunearen maila jaisteko eta burnizko “arquillo”ak jarri ziren. “Arquillo” horiek bata bestearen alboan jarri ziren (normalean metro bateko tartea uzten da haien artean) harresi antzeko bat egiteko asmoz. Harresi horrek bi funtzio zituen: alde batetik, gurpil-aulkian jaisten ziren adineko pertsonak errepidetik babestea eta, bestetik, kotxeak marra horian aparkatzea eragozte

Maiatzean, Herritarren Postontzian, pertsona batek esan zuen Udalak burnizko harresia kendu behar zuela. Haren iritziz, ez zen interbentzio egokia adineko pertsonen babesgabezia eragingo zuelako eta kotxeak, berriro ere, gaizki aparkatzen hasiko zirelako.

Hori dela eta, maiatzeko batzordeetan Bide Publikoetako delegatua interpelatu genuen. Diez jaunak adierazi zuen Larratxoko jubilatuen elkarteko lehendakariak “arquilloak” kentzeko eskaera egin ziola, aparkatzeko zailtasunak zituelako.

Gauzak horrela, delegatuari adierazi genion ezin genuela ulertu Udal Gobernuak erraztasunak eskaintzea pertsona jakin batzuei gune debekatu batean kotxeak aparkatzeko, eta maiatzeko udalbatzarrean honako kontrol mozio hau aurkeztu genuen:

- *Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari argitu dezala Larratxo pasealekuko 26. zenbakian dagoen marra horian (gune debekatuan) aparka daitekeen edo ez.*
- *Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, aparkatzeko debekua mantentzen badu, gidariek marra horiak adierazten duena betetzeko neurriak berma ditzala; hau da, kotxeak aparkatzen ez direla zain dezala.*
- *Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, herritarrek horrelako eskaerak egiten dituztenean, zinegotzi ordezkariak teknikarien iritzia kontuan har dezatela; kasu honetan, Mugikortasun Departamentuko eta Herri Seguritasuneko teknikarien iritzia kontuan har ditzatela.*

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

Udal Gobernuak ezezko bozka eman zion kontrol mozioari eta ez zuen argitu zer gertatuko zen aparkalekuarekin. Hori dela eta, Mugikortasuneko delegatua interpelatu dugu uztaileko batzordeetan, Udal Gobernuak aparkalekuak ezartzeko orduan zein irizpide jarraituko dituen jakin ahal izateko.

Batzorde horretan, delegatuak aitortu egin du Larratxon egindako gestioa negargarria izan dela. Hain zuzen ere, hauek izan dira delegatuaren hitzak: *“esta actuación ha sido un cúmulo de despropósitos...los criterios técnicos siempre se tienen en cuenta, pero es verdad que a veces podemos decidir otra cosa por el bien general o por otros motivos. Se ha hecho una chapuza, lo reconozco. No está bien y pido un poco de tiempo para arreglarlo...ahora mismo está mal”*.

Ez dago esan beharrik Udal Gobernuaren adierazpen hauek oso kezagarriak direla, zalantzan jartzen baitute kudeaketarako bere gaitasuna.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala Bide Publikoetako Departamentuaren funtzionamendu eraginkorra eta gainerako sailekiko koordinazioa.

Donostian, 2017ko uztailaren 14an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia